



HONDAKINEN EDUKIONTZIEN ALDAKETA

Otsailaren 15tik aurrera hondakinen edukiontzia aldatuko dira. Oraingo paper-edukiontzia (urdina) eta ontzi-edukiontzia (horia) aldatuko dira. Kamio berrien lana errazteko asmoz edukiontzien posizioa aldatu egingo da; zuloa bide aldera eduki partez, frontoi aldera edukiko du.

Galnera bi gauza gogorarazi nahi dizkizuegu:

- edukiontzietatik kanpo dagoena kamioi-gidariak ez du jasotzen; edukiontzi barrukoa bakarrik jasotzen du.
- **hilabete bakoltzeko 3. ostegunean etortzen dira bolumen handiko hondakinak** (koltxolak, sofak, oheak, TV, ateak...) jasotzera, **aurrez horrela eskatuta.**

Horretarako, egun batzuk lehenago deitu Tolosaldeako Mankomunitatera (943 67 62 16) abixua emateko. Zein herritatik delitzen duzun, zer botako duzun eta zenbat botako duzun esatearekin nahikoa da.

Bota beharrekoa, jasoketa egunaren **bezperan utzi** behar da eta gaikako bilketa egiten dugun edukiontzien ondoan utzi.

Bolumen txikiko hondakin bereziak (bateriak, irratiak, aulkiak...) norberak eraman behar ditu Tolosan edo Andoainen dauden Garbiguneetara.